

ETXE ALDAKETA

Etxe aldaketa egin bearrean aurkitu naz aurten.

Berrogei ta iru urte etxe baten egin eta aldatu bear.

Ainbat urtetako tresna, jantzi, oroi-tza, paper eta ondakiñak aidean erabili bear.

Urte orreitan nekez batu, zela-ala lortu, ordu luzetako alegiñez sortu eta idatzitako paperak alkartu, tolestu, aldatu eta nastean erabili bear, batetik bestera.

Euretako asko zeetu eta apurtu bear. Asko gordeten dira, zerbait balioko daberen itxuran. Eta gordeteko egoten dan garra, bereala biurtzen da ezereztuteko indarrean.

Len maite eta gogoko nitun paper asko, toki barrirako, batetik leku jangarri ta bestetik pixua be kontuan eukita, apurtu ta jaurti bear.

Atsegiñez gordeta neukazan ainbat aldizkari eta egunkarietako zati, txatal, egiterau, iragarki eta abar, aldendu dodaz, iñoren probetxu barik. Geroago esan dauste batek eta besteak, atsegiñez artuko zituela orrelako paperak. Egia esateko, ni neu be damutu nitzan.

Edozetara be, nik etxe aldaketa egin dot. Eta egiten lengo gomuta zurrak etorri jatatz. «Etxe aldaketa» izenekoa ez alzan gerra aurretikoko euskal bizitasunean Karraskedo Olarra tar Jazinto billabonatar idazle argi eta zurrak idatzi eta sari bat lortu edo irabazi eban antzerkiá?

Begiratu artxibotara: 1934 urtean zala uste dot sariketa ori.

Gaurko teknikaz gogoratuta be ibili naz. Kopia bi edo iru neukaza: nire lan batzuenak, gaur kopiak atarateko dagon aukera eta erreztasuna kontuan eukita, kendu egin dodaz.

Berrogetak urtetan ainbat liburu eta paper batuta neukazan. Zabalduta be bai asko. Batzuk erosiak, besteak emonak. Ez daukat beste ondasunik. Ez daukat pitxirik ez beste edergarririk. Ez daukat dirurik be. Liburuak eta paperak eta kittu. Azkenean kreditua atara bear, zorra egin bear, etxe aldatuan egokitasun pixkat ipinteko. Besteak esaten dabena, azken baten dana kanpakiak orainduko dabela ta aurrera.

Emendik aurrera nire liburuen fitxero bat egiteko aukera artuko dodalakoa nago. Zartzaroko ezapidea artzea da au. Gauzak ordenan ipini edo ipinten alegindu, besterik ezean ondorengoak akatsik billatu ez dagien be.

Etxe aldaketak ba daukaz mesedeak. Ez dot ukatuko. Baiña ba daukaz kalteak be. Eta konturatu egiten da bat oker dagozan legeekin be.

Bat, urrutizkiña. Berrogeitabi urtetan urrutizkiña euki ta zenbaki berbera lendik ariak dagozan beste etxe batera berrogetamar metroen barruan aldatzeko, barri baten beste ordaindu bear. Biotzik bagako etxe oneik ez dabe kontuan artzen ez antxiñakotasunik, ez zartzarorik, ez beste Jainkoaren mesede eta be-deinkaziñorik.

Nik ez dot ukatzen urrutizkiñen mesederik, baiña ezin nei ukatu berbetan erakusten daberen biguneri eta biotz makurtasuna eta paperetan agertzen daberen ontasuna egizko diranik be.

Beste bat: Len kalearen parean, etxerako mailladirik ez neukan. Orain 61 mailladi etxera igoteko eta goragaillu barik. Eta maillak baiño bederatzu urte geiago nik lepoan eta eun kilo koipe eta azurretan.

Ba daukadaz egokitasunak be. Goizeko zazpiretarako argi barik idazten ekin nei. Orrek poztasuna, adorea eta nortasunaren zerbait sartzen dau eguneko bizi-tzan. Goiztar bizi eragin bateri.

Eta oraindik lan egin bearrean aurkitzen naizanez, dana bear, gero ta illeta eta samiñez beteago dogun bizi oneri eutsi eta besterik ezean, euskeraren alegiñean jarduteko.

Edozetara be borondaterik onenean, biziak argi zainduten gaitun artean.